

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako ekonomia % 3 hazi da eta BPGren bilakaera-aurreikuspeni eusten zaie

*Kontsumo-maila, esportazioen gorakada eta industriaren bilakaera, aurrerabidearen faktore nagusiak*

Ostirala, 2016.eko uztailak 29

Nafarroako ekonomia % 0,7 hazi da bigarren hiruhilekoan, lehen hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago (% 0,6), Nafarroako Estatistika Institutuak landutako hiru hilean behingo kontabilitate-[aurrerapen](#)aren arabera. Iazko hiruhileko berarekin alderatuz, ekonomia % 3 hazi da, aurreko epeko tasa baino hamarren bat gutxiago.


Azken hilabeteotan hazkundea apur bat moteltzen ari dela ikusi bada ere, Manu Ayerdi lehendakariordeak aipatu du "hurbileko" etorkizuna [aurreko hiruhileko](#)an baino "baikorragoa" sumatzen dela; beraz, haren Departamentuaren ustez, hazkundea 2016. urte hasieran egindako aurreikuspenarekin bat etorriko da (% 2,9), hau da, % 2,8-2,9 ingurukoa izango dela.

Lehendakariordeak azaldu duenez, faktore nagusiak baikortasunera eramaten gaitu; urteko lehen sei hilabeteetan izandako hazkundea aurreikusitakoa baino 2 hamarren gehiago izan da (% 3,1eko urte arteko batez bestekoa; Gobernuak % 2,9ko aurreikusten zuen).

Beste elementu positibo batzuk dira: ekonomiari tiratzen dio kontsumo-maila, esportazioen gorakada eta industriak oro har izan duen susperraldia; azken horrek Espainiarako eta EBrako erakutsitako bilakaera hobea erakutsi du ere, autoen ekoizpenari esker, funtsean.

Izan ere, eskualdeko ekonomia estatu guztiko diferentziala murrizten ari da. Espainia % 3,2 hazi da urte arteko datuei erreparatuz, aurreko hiru hilean baino bi hamarren gutxiago, bigarren hiruhilekoan % 0,7ko aldaketa izanik.

Bi lurraldeetan aurrerabide-tasak moteltzen ari dira aurreko hiruhilekoekin alderatuz, nahiz eta Nafarroako moteltzea hiruhileko honetan leunagoa izan Estatu guztian ikusten denarekin konparatuz.



Urte arteko terminoetan, Nafarroako BPGren desabantaila lehen hiruhilekoko 3 hamarrenetatik 2ra murriztu da. Eta enpleguan, Gizarte Segurantzako afiliazioei dagokienez (erregistro bat), azken hiruhilekoko enpleguaren hazkunde-tasa % 2,7 izan da bi lurraldeetan; 2015aren hasieran, diferentziala zazpi edo zortzi hamarren zen.

Nolanahi ere, okupatutako pertsonen buruzko BAiren datuekin (lagin bat), ez da sinkronizazioa ikusten. Lehendakariordeak "sendotasun" arazoak sumatzen ditu atzo jakitera emandako datuetan: 2008ko urtarriletik, BAiren okupatuaren zifra Gizarte Segurantzako afiliatuaren gainera izan da beti (8.700 eta 19.200 pertsona gehiago artean) baina, estreinakoz, oraingoan azpitik izan dira, 4.800eko aldearekin. Gainera, Gizarte Segurantzaren hiruhilekoan 5.500 lagun gehiago afiliatu dira eta inkestak, berriz, okupatutako pertsonen kopurua 4.200era jaitsi du; zerbitzu-sektorean 5.900 pertsona geratu da lanik gabe, nahiz eta afiliatu kopuruak gora egin (2.400) eta ekonomiari tiratzen dion sektoreetako bat izan, lehendakariordeak azaldu duenez.

### **Espainiako Gobernu eta Brexita**

Arrisku-elementuei dagokienez, Ayerdik nabarmendu duenez, kezka eragiten duen gune nagusia Espainiako Gobernu berria osatzeko dagoen atzerapena da. `Brexita`-a da beste faktore garrantzitsua, eta horri buruz lehendakariordeak azaldu du ondorioak iragarritakoaren azpitik geratuko direla; izan ere, Erresuma Batuen erabakia une "gozo" batean etorri da. Ayerdik adierazi du, gainera, eragin hori 2017an nabaritu dela.

"Egia dena da bi kezka-guneek orain arte uste baino oihartzun txikiagoa izan dutela. Espainiarako aurreikuspen ekonomikoak ere handiak dira, eta azkenaldian goranzko joerarekin berrikusten dira", zehaztu du Ayerdik, FUNCASek egindako proiektioari erreferentzia eginez, hazkunde-iragarpena hiru hamarren igo duena, % 3raino, Funcas Kontsentsuak aurreratzen duenaren oso antzekoa (% 2,9, maiztzen baino bi hamarren gehiago).

Nazioarteko Diru Funtzak ere ez du bere egoera aldatu Brexitararen ondoren; haren arabera, erabaki horrek eragin handia izango du 2016an, baina Espainiarako esperotako hazkundeari eusten dio (% 2,6), esan du.

### **Kontsumoa, esportazioak eta jarduera**

BPGren sustatzaile nagusiak kontsumoa eta hari zuzenean lotutako jarduerak dira, merkatuko zerbitzuak eta merkataritza, esaterako. Hala, zerbitzu-sektoreko jarduera-indizea % 3,6 hazi da 2016an, eta txikizkako merkataritza % 4,5, biek ala biek bizkortze txiki bat izanik.

Nolanahi ere, Ayerdi lehendakariordeak zehaztu duenez, indizeak datozen hilabeteetan pixka bat leuntzea aurreikusten da, maila altuen barnean beti ere, kontsumitzaileen sentimenduari edo konfiantzari gehiago lotutako beste adierazle batzuk ikusirik, eta kontsumoaren aurretik funtzionatzen dutenak.

Azken hilabeteetan ere, esportazioek gora egin dute: urtarril eta martxo artean % 8,6 jaitsi ziren aurreko hilarekin alderatuz, eta apiril eta maiatzetan, % 5,6 igo autoen ekoizpenari esker, % 24,5 gehiago hazi dena hiruhileko honetan, eta horrek kanpoko eskariak BPGri egindako ekarpena balio positiboetan mantendu dezake. Ayerdik lehen hiruhilekoko beherakada BSHren egoitza-aldaketari egozten dio (Aragoira joan da), baina esportazioen martxak inpaktua gutxitu du: aldaketak maiztzeraren arte ekarri duen 200 milioietatik, esportazioak 2015ean baino 100 milioi gutxiago dira.

Gainera, kontuan hartu behar da BSH etxeko tresnen enpresaren egoitza-aldaketak Nafarroako esportazioen gainera datuei eragin diela, beheranzko joerarekin, enpresa Aragoien kokatu baita. Hala, aurreko hileko 40 milioi gutxiago dugu arrazoi hori tarteko, hau da, 200 milioi 5 hilabeteetan bakarrik.

Ibilgailuen ekoizpenean izandako gorakada horrek lagundu du, hain zuzen, apiril eta maiatzeko industria-ekoizpenaren hazkundera, nahiz eta urte guztia aintzat hartuta oraindik balio negatiboetan egon, Ayerdik azaldu duenez.

Industria Egoeraren Inkestan jasotako proiektioak baikorrak dira etorkizun hurbileko enpresa-

ekoizpena hobetu egingo dela adierazten baitute, Espainiarako eta EBrako erakutsitakoa baino bilakaera hobe, gainera.